

## Tolosa Zuria Loretan ekimena beterik dator asteburuan

Museoen Nazioarteko Eguna, Gau Zuria eta Lore eta Landare Azoka Berezia uztartuko dituzte, ostiralean eta larunbatean, Tolosako Udalak eta Topic museoak elkarlanean //3

## Sei etxebizitzako etxea eraikitzeko modua aztertzen ari dira

Abaltzisketan 446.000 euroko aurrekontua dute aurten; etxebizitzaz gain, mugarriak nahiz baserri bideak ere dituzte egitekoen artean; zerbitzuak digitalizatzea probatzen ari dira //2

## Danok Danena taldeko sei pultsulari, Euskadikoan txapeldun

Villabonako Olaederra kiroldegian jokaturako Euskadiko Halterofilia Txapelketan, taldeko bi emakumek eta lau gizonek lortu dute lehen postua //7

## EBA ligara igotzeko bigarren aukera izango du TAKEk

Lau talderen artean batek izango du mailaz igotzeko aukera; tolosarrek larunbatean jokatu dute Deusto Loiola Indautxuren aurkako partida //7



ENERITZ MAIZ

# «Sekretua larre onak eta esne garbia erabiltzea da»

## KORO ARTOLA ARTZAINA

Kaleko lana utzi eta artzain lanetan hogeita hamar urte daramatza Berastegiko Iturregi baserrian; artzain izan eta gaztak egiterainoko bidea oso aberasgarria dela dio; erakundeek baserritarren lana ezagutu beharko luketela uste du //5



**LOATZO**  
MUSIKAESKOLA

Aduna Anoeta Villabona  
Alegia Ibarra Zizurkil  
Altzo Irura

# MUSIKARI BILA

MATRIKULAZIOA  
Maiatzaren 16tik 22ra

[www.loatzo.eus](http://www.loatzo.eus)

- Musikaz gozatzeko
- Ongi pasatzeko
- Kantatzeko
- Musika tresna bat jotzeko
- Talde bat osatzeko

# Etxebizitzaren gaia dute helburu garrantzitsutzat, Abaltzisketan

Abaltzisketako Udalak egoera ekonomiko ona du, eta etxebizitzak egin nahi dituzte herritarrak bertan bizitzeko aukera izan dezaten, baina oraingoz eskaerarik ez dute

## Eneritz Maiz Etxarri

Egoera ekonomiko onean dago Abaltzisketako Udalak, eta 446.000 euroko aurrekontua du. Etxebizitzaren gaia dute garrantzitsutzat, baina gaia «konplikatu» dela esan du Jon Zubizarreta alkateak; «ez atzera eta ez aurrera gaude».

Gipuzkoako Foru Aldundia ere herri txikiei begira horretan ari dela, eta bilera pare bat egin dituztela azaldu du: «Herritarrek ere hori esaten digute, etxeak egin beharra daudela, eta guk ere badakigu etxeak egin beharra daudela, baina errealitatea da eskaerarik ez dugula». «Inork ez digu esaten egiten baldin badituzue ni geratuko naiz», dio Zubizarretak. Nahiz eta kanpotik bizitzera joandakoak ongi etorriak izango liratekeen, herriko seme-alabek herrian bertan bizitzen geratzeko aukera izatea da udalak duen lehentasuna.

Etxebizitza batean sartzeko aukera azken urteetako egoerak eta gertakariak zaildu egin dutelakoan da. Bien bitartean, udaleko arauetan aldaketa txiki batzuk egiten ari dira, eta martxan jarriak dituzte arauak. Sei etxebizitzako etxe bat egin nahi dute. Iaz bereganatu zuten zati guztia, eta jada udalaren jabetza da udallexaren ondoko eremua. «Formula bilatu beharra daukagu. Promotorea udalak izan behar duen edo foru aldundiak; edo kanpoko eraikuntza enpresaren bati eman behar diogun, edo kooperatiba bidez interesatuekin... horiek aztertzen ari gara». «Administrazio publikoak egiteko tan alokairukoak behar dute izan etxebizitzek, eta hori ere ez zaigu gehiegi gustatzen Abaltzisketa baterako», zehaztu du alkateak.

Bestalde, iaz aritu ziren kale izendegia eguneratu eta berritzen, eta forma guztia emana badute ere, pandemiak atzeratu die herritarrek konpartitu ahal izatea. Herritarrek batzarra egin nahi dute, gero batzar nagusitik pasako lukete, eta ostean etorriko litzateke aldaketa.



Abaltzisketako zerbitzu publikoak hobetze aldera, Hispasat enpresak proiektu pilotu bat du martxan. E. MAIZ

## MUGARRIAK ETA URA

Bestalde, foru aldunditik diru laguntza jaso dute herriko muga guztiak, hau da, partzela guztiak digitalizatzeko. «Batzuk mugari fisikoak dituzte, baina beste askok ez dituzte galdu egin direlako, eta lanketa handi bat egiten ari gara». Herriaren lur guztiak, bai pribatu eta baita publikoak ere markatzen ari dira: «Dedikazio handia eskatzen digu». Guztira ia 1.000 partzela dituzte, eta «horrek esan nahi du terreno zaleek ondoko guztiekin adostu egin behar dituztela mugak, eta erreka zulora jaitsi beharra dagoenean jaitsi egin behar dela, eta basoan gora edo behera joan behar denean, berdin».

Zubizarreta gustura agertu da herritarren aldetik «harrera ona» izaten ari direlako. «Bagenekien katastroa ez zegoela ondo, baina hain gaizki zegoenik ere ez genuen uste», zehaztu du. «Mugen gainean denok ari gara ikasten; bai partikularrak, udaleko langileak eta baita gu ere».

Lehen fasean ari dira, eta akta bat jasotzen dute mugakideen artean. Puntu bat zehaztu eta hesola edo zinta bat jartzen dute. «Aktak sinatuta udaletxera ekar-

tzen dituzte, eta kanpoko enpresa bat dugu kontratatuta topografikoki hartzeko».

Azaroa bitarteko epea dute mugari guztiak zehaztu eta jasotzeko; «ari gara, baina oraindik asko falta da», nabarmendu du. Udara guztia beharko dutela esan du.

Horrez gain, Goilarre programaren barruan, herri mendian, ur ekarrera bat egiten ari dira pare bat kilometroan, ura ez zegoen tokian larreratu ahal izateko. Aspaldiko nahia dela ekarri du gogora, eta ia bukatzeaz dituztela lanak. «Lan dezente ari gara egiten, eta hiru aska jarri ditugu».

## DIRU LAGUNTZAK BALIATUZ

Abaltzisketako Udalak ez du hutsik egiten eta aurten ere baserri bideak konpontzeko laguntza baliatuko du bi baserri bide berri ahal izateko. «Iazko azaroko euriteen inguruan luizia ere joan zitzaigun, eta horren konponketa izango da bat, eta beste bide batean hormigoia botako da».

Abaltzisketako Ostaturako sukalderako tresneria berritzeko diru laguntza eskatu dute Eusko Jaurlaritzako Leader programa-

ra: «Jada urte batzuk baditu, eta aldaketa batzuk eskatzen ditu».

Diru laguntza bai ala bai egin behar izan duten udaletxeko teulatuko konponketarako eskatu dute: «Diru laguntza jaso edo ez jaso, itoginak genituen eta konpondu egin dugu jada». Gainera, efizientzia energetikoari begira udaletxeko leiho guztiak aldatu nahi dituzte: «Beroak ihes egiten digu neguan». Kasu honetan, ordea, itxaron egingo dute ea diru laguntza lortzen duten «gastu handia» delako. Kultur ekitaldi eta festei begira ere, herri bazkaritarako eta afaritarako aulkia eta mahaiak erosteko asmoa dute aurten; «beti aldame-neko herrietakoei eskatzen ibiltzen gara; bertso afari eta abarretarako musika ekipo baten beharra ere izaten da, hori ere beti eskean ibiltzen baikara amezketarrei, eta erostekotan gabiltza».

Kultur ekitaldietan sartuta, udazkenean egitekoak ziren, baina udaberrirako utzi zituzten. «Jendea gogoarekin ere badago», eta jada martxa hartu dute. Esaterako, Aste Santuan itxi zituen ateak Abaltzisketako Ermentañe jatetxeak, eta herri-

tarrez gain, udalak ere bere omelnditxoa egin nahi izan die festa giroan: «Herriari hainbesteko bizia eman dion eta beti herriarentzako egon den taberna bati zer-bait egin beharra zegoen».

Herri giroa sortzen duten ekitaldiek herritarrak «bete» egiten dituztela argitu du, eta «gehiago» egiteko eskatzen dutela. «Gure herriko jendea gauza gutxirekin konformatzen dena da, eta askotan beraiek ateratzen dira ondoen eta merkeen».

Abaltzisketa eta Larraitz, herri txikia izanagatik jende asko jasotzera ohituta daude, eta baita harremanak izaten ere; «baina, iluntzea iristean gustatzen zaigu guretzat ere, herrikoentzako zerbait jartzea».

## PROIEKTU PILOTUA

Haziren bitartez Hispasat enpresa jarri zen harremanetan udalarekin. Herri txiki batean egin nahi zuten proba, «bertako zerbitzuak hobetze aldera». Sentso-re pila bat eskaini dizkiete, eta herrian zerbitzu publikoak direnak digitalizatu nahi dituzte: argiteria publikoa, hondakinen edukiontzia, ... «Sentsoreak jarritu ditugu, eta aplikazio baten bitartez sentsoreek esaten digute, esaterako, edukiontzia zenbateraino beteta dauden edo argiteriaren kasuan bakarren bat fundituta dagoen edo behar bezalako argirik ez duela egiten».

Eraikin publiko guztietan, tabernetan eta Logikalen bertan CO2 neurgailuak jarritu dituzte, «airearen kalitatea neurtzeko».

Basoan ere suteen kontrakoak jarriak dituzte. «Tenperatura, hezetasuna, ... datu pila bat ematen dizkigute, eta sute arrisku handia bada alertak bidaltzen dizkigute». Mendian estazio meteorologiko bat, mendiko txabola batean wifi zerbitzua, bidegorrian eta Txindokirako bidean jendearen kontagailuak, ... Guztiz jartzen bukatzean, sei bat hilabetez izango dituzte jarritu, eta gero udalak erabaki beharko du interesatzen zaion edo ez zerbitzua mantentzea.



# Lore koloretsuek bat egingo dute gauaren zuritasunarekin

III. Tolosa Zuria Loretan jaialdiaren barruan, Gau Zuria, Lore eta Landare Azoka Berezia eta Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko dituzte, ostiralean eta larunbatean



Xabier Ormazabal (Topic museo), Xarles Iturbe (Tolosako Udala) eta Gorka Arregi (Gipuzkoako Loradenden Elkarte), aurkezpenean. J.A.D.

## Josu Artutxa Dorronsoro

Pandemiaren ondorioz, bi urtez antolatu ezinik ibili ondoren, aurten bat egin dute Tolosako Udalak eta Topic museoak, elkarlanean, Tolosa Zuria Loretan jaialdiaren hirugarren edizioa antolatzeko; Museoen Nazioarteko Eguna, Gau Zuria eta Lore eta Landare azoka uztartuko dituzte. «Herria indarberritzen eta berezkoa duen dinamika, jarduera eta erreferentzialtasuna berreskuratzen ari da» adierazi du Xarles Iturbe Merkataritza, Feriak eta Turismo zinegotziak. «Azokei dagokienez, hilabete garrantzitsua izango da maiatza, eta eragin positiboa izango du hiri-ekonomia osatzen duten sektore guztiengan», esan du.

Hain justu, hiri-ekonomia mahaiaren sortutako ideia da Tolosa Zuria Loretan. Xabier Ormazabal Tolosako Ekinbide Etxeko ordezkariak esan duenez, «nahitaezko hitzordu» bilakatu da Topic-eko urteko jardueren artean. Txotxongiloen museoak bat egingo du ekimenarekin, eta hilaren 18an (asteazkena) ospatuko den Museoen Nazioarteko

Eguna baliatuz, Gau Zuria egingo dute ostiralean.

Egitarrak berezia antolatu dute datozen egunetarako, berrikuntza batekin: koktel zuria dastatzeko aukera izango da ostiral gauean, Bide-Bide jatetxean. Doakoa izango da, nahi duten guztientzat. Horrez gain, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte museoan, eta tartean, bisita gidatuak izango dira; ostiralean helduentzat, eta larunbatean familientzat. Biak ere, euskaraz eta gaztelaraz egingo dituzte, eta familientzakoak bisita gidatu antzeztuak izango dira. Azkenik, larunbatean, Fotopic lehiaketako sariak banatuko dituzte, argazki erakusketa inauguratuz.

## LORE ERRALDOIA, ERDIGUNEAN

Larunbatean, ohiko azokaz gain, Lore eta Landare Azoka Berezia ospatuko da Trianguloa plazan: lore landare, hazi eta barazki landareak erosteko aukera izango da, eta adituengandik, horiek landatzeko eta zaintzeko aholkuak jasotzeko aukera ere bai. Guztira, zazpi postu egongo dira: Zurlan, Sairu loreak, Murueta,

## III. TOLOSA ZURIA LORETAN

### Maiatzak 13, ostirala

**16:00–00:00.** Ate irekiak, Topic-en. Helduentzako doako bisita gidatuak, euskaraz (20:00) eta gaztelaniaz (21:00). Aurrez eman behar da izena; gehienez, hamabost lagun taldeko.  
**23:00.** Koktel zuriaren dastaketa, Bide-bide jatetxearen eskutik.

### Maiatzak 14, larunbata

**09:00.** Lore eta Landare Azoka, Trianguloa plazan.  
**10:00–14:00.** Ate irekiak, Topic-en. Familientzako doako bisita gidatuak, euskaraz (11:30) eta gaztelaniaz (12:30). Aurrez eman behar da izena; gehienez, hogeit hamar lagun taldeko.  
**10:30.** San Isidro eguna dela eta, baserriar eta ekoizleei omenaldia.  
**11:30.** Musikeneko ikasleaz osatutako Ashyma Quartet taldearen kontzertua, Topic-en. Sarrera: 5 euro.  
**17:00.** Fotopic lehiaketako argazki erakusketaren inaugurazioa eta sari banaketa, Topic-en.  
**17:30.** Familia-tailerra Topic-en: txotxongilo bat eraikitzeo aukera.  
**18:30.** Babel Teatro konpainiaren *Beethoven* ikuskizuna, Topic-en.

La Arena, Guillen, Zunoyar eta Iñigo Azpiazu.

Azoka bereziaz gozatzeko aukeraz gain, Gipuzkoako Loradenden Elkartearen eskutik, Gaztelako Arkuan kokatuko den *Hegan* lore apaingarri erraldoia ikusteko aukera ere izango da. «Lore lehorrekin egindako 600 estola jarriko ditugu sabaitik zintzilik», azaldu du Gorka Arregi Arregi Loradendako ordezkariak eta elkarteko kideak.

Bestetik, San Isidro eguna igandean ospatuko bada ere, Lore eta Landare azoka berezia eta ohiko azoka baliatuko ditu udalak, horietan postuak jarriko dituzten baserriarrak eta ekoizleak omentzeko. «Festa giroan murgilduta, dantzariakin eta mokadutxoarekin, modu xumean eskertuko diegu urteko lana eta ahalegina», esan du Iturbek.

## GUTUNA

### Herriko hirigintzaz

**E**z dugu Tolosako Udala Facebook, Twitter edo Instagram bidez jarraitzen. Ohiko prentsa eta komunikabideak ere utziak ditugu azken aldian, gain-desinformazioak nekatuta. Kasualitatez izan dugu herriko hirigintzako azken kapituluaren berri: 300 etxebizitza eraikiko omen dituzte Amarotz auzoa bukatzen den tokian, herriko azken enpresa papergilearen kokagunean. Ez dirudi bizitzeko toki politena, mendiaren eta ibaiaren artean, eguzki argi eskasarekin, herritik urrun. Baina tira, hori garrantzitsua izanda ere, ez da garrantzitsuena.

Hirigintza gure ogibideak duen arlorik inportanteena da, nola biziko garen baldintzatzen baitu. Nola mugitu, nola erlazionatu, nola kontsumitu, zertan jolastu, zein aire arnastu, dena dago hiri eta herrien antolaketak baldintzatua. Hirigintzak soziologia, ekonomia, bizi kalitatea, espazio publikoaren kudeaketa, ekologia eta hainbat eta hainbat alor barneratzen ditu.

Voith eta Gorostidi itxi ziren eta auzo berria eraiki. Etxe kopuru gehiegizkoa eraiki zuten, 750 etxebizitza inguru, oso kalitate eskaseko espazio publikoa sortuz. Kontua da erabaki horrek Tolosa osoari eragiten diola, bizi garen moduak azken finean planeta osoari eragiten dio eta.

Alde Zaharra utzia dago, herriko bihotza gero eta marjinalago, gero eta *ghetto*-ago. Tolosako merkataritza ere oso makal dabil, gero eta denda gehiago itxita, gero eta aukera txikiagoa herrian erosteko. Eta ez da kasualitatea, gaizki hartutako erabakien ondorioa baizik. Zenbat denda ireki dira Voith-Gorostidin? Non egingo dituzte erosketak auzotarrak? Denetik egongo da, baina etxe azpian dendarik ez baduzu, errazago erosiko duzu merkataritza gunen batean, edo internet bidez. Eta horrek, zalantzarik gabe, denon bizitzak baldintzatzen ditu. Ez da aditu izan behar honek jasangarritasunari mende egiten ez diola ulertzeko.

300 etxe berri Amarotz bukatzen den lekuan, 1.000 pertsona bizitzeko adina, 300 familia gazte, ulertzen da. Nola biziko dira gazte horiek? Non egingo dute lan? Non erosketak? Etxetik oinez abiatuta, ala kotxea hartuta merkatal gunen batean? Nola eramango dituzte haurrak eskolara? Oinez, autobusez ala kotxez? Nola eragingo dio Tolosari fami-

lia gazte horiek herritik aldenitzeak? Nor biziko da erdialdean? Nor Alde Zaharrean?

Zein da hurrengoa? San Esteban? Auzo honek hogeit hamar urte baino gehiago daramatza utzita. Enpresak itxi eta hor geratu dira «gorpuak» lurrari eman gabe, herriak berreskuratzeo aukerarik gabe. Auzo ederra da, herriaren eta mendiaren arteko mugan, eremu zabalean. Zein da plana? 1.000 etxebizitza proposatu zituzten lehenik; gero, 350 bat egingo asmoa landu zen auzotarrekin. Badirudi tarteko zerbait dela orain helburua. Baina noren helburua?

Beste 2.000 herritarrentzako bizilekua izan daiteke San Esteban, beste 600 bat familia berri. Familia horiek denak kanpotik etorriko ote dira? Hainbeste haziko al da Tolosa? Hala balitz noren kalterako? Nork galduko du populazioa, nongo etxebizitzak eta kaleak hustuko dira? Galderak eta galderak. Hori da gure lana, galderak egin eta erantzun egokiak aurkitzen saiatzea.

Horrek izan behar luke baita udaletan, aldundian, jaurilaritzan, dauzkagun ehunka politikari eta milaka teknikarien lana ere, galderak egin eta erantzunetan asmatzea. Inoiz baino gehiago dira erabakiak hartu eta baldintzatu ditzaketenak, baina ez dirudi asko eta inoiz baino presatuagoak izateak emaitza onak bermatzen dituenik.

Jasangarria al da etxe zaharrrak alde batera utzi eta berriak eraikitzea? Ona al da gizartearentzat herriko dendak itxi, gabe geratu, eta erosketak kotxez, urrutik, makro-denda batean egingo al dugu bizitzeko eredu horrekin?

Badakigu ezetz; badakite ezetz, eta hala adierazten digute gainera pilula txikietan, ardura guregain jarri nahian: «Abisatuak zeundeten!» esango dute gero. Baina bide egokia zein den jakin arren kontrakoa erabakitzen du sarri administrazioak, ondo ari garela esanez, gainera.

Batzuetan badirudi gizarte arazoak kasualitatez ala ezinbestean sortzen direla; «horrela dago mundua», esaten dugu, «beste nonbait baino hobe gaude hemen» esanez lasaitzen dugu gure burua. Baina mundua guk egingo dugu, gure erabakiek baldintzatzen dute, eta erabaki txarrek emaitza txarrak emango dizkigute ezinbestean. Saia gaitzen asmatzen.

Ander Auzmendi eta  
Maria Gurrutxaga Tolosa

# Baserritarren eguna ospatuko dute datorren igandean

Alkizan hiru eguneko egitaraua antolatu dute etzi hasita; San Isidro egunez, ohiturazko bazkari eta ospakizunak egingo dituzte eta Zizurkilen Jon Erasun omenduko dute

## Erredakzioa

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, baserritarren omenezko ekitaldiak egingo dira Tolosaldeko hainbat herritan. Jai kutsukoak izango dira gehienak, eta Alkizan, esate baterako, hiru eguneko egitaraua prestatu dute San Isidro egunaren bueltan.

Aurten, berezia izango da ospakizuna Zizurkilen, profesional izateari utzi berri dion Jon Erasun pilotaria omenduko baitute herrian. Intxaur frontoian, partidak jokatu dituzte igandean.



Erasun, apirilaren 30an, Behar Zanak antolatutako bertso pilota saioan. J.M.

## SANISIDROAK

### Maiatzak 13, ostirala

#### ALKIZA

**17:30.** Herriko musika ikasleen kontzertua. Dultzaina ikasleak.

**18:00.** Herriko musika ikasleen kontzertuak. Trikitixa eta pandero ikasleak.

**17:30.** Luma eta tinta erakusketa salto gelan.

**19:00.** Emakume kirolariak mahai ingurua, Fagus Alkiza zentroan. Aitziber Ibarbia, Miriam Arrillaga eta Idoia Etxeberria. Unai Ugartemendia moderatzailearekin.

### Maiatzak 14, larunbata

#### ALKIZA

**10:00.** Danena Txirrindulari elkartearen eskutik, bizikleta-ginkana 6-10 urte bitarteko haurrentzat, plazan.

**10:00.** Bizikleta irteera 10 urtetik aurrerakoentzat, herriko plazatik abiatuta.

**17:00.** Frontenis txapelketa, frontoian.

**23:00.** Distopia elektrotzaranga, plazan.

### Maiatzak 15, igandea

#### ALKIZA

**14:00.** Baserritarren bazkaria, Alkizako herri ostatuan.

**17:00.** Frontenis txapelketa, frontoian.

#### ALTZO

**13:30.** Meza, Altzo Muñoko Santa Maria Elizan.

**14:15.** Bazkaria, Altzoko Ostatuan.

#### AMASA

**10:00.** Meza nagusia.

**12:30.** Herri kirolak, bertsolari eta trikitilariak alaiturik.

**14:00.** Bazkaria Iturri Goxo jatetxean.

**21:00.** Afaria Uxo Toki elkartearen.

#### ASTEASU

**Egurdian.** Triki-bertsokaleja herriko trikitilariak eta Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre bertsolariak.

**Ondoren.** Bazkaria Iturriondoren. Bazkalostean, trikitilari eta bertsolarien saioa.

#### BERROBI

Meza eta ondoren herriko baserritarrentzako hamaiketako, Iriarte jatetxean.

#### BERASTEGI

**11:45.** Prozesioa udaletxetik San Martin elizara, txistulariek lagunduta.

**12:00.** Meza, herriko haur dantzari eta bertsolariak lagunduta.

**13:00.** Herriko haur pilotarien partidak karrapean.

**14:00.** Bazkaria udaletxeko erabileranitzeko gelan.

**Ondoren.** Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

#### ZIZURKIL

**Egurdian.** Bertsolariak eta bazkaria.

**17:00.** Ziotza pilota eskolako umeen partidak.

**18:00.** Emakumeak paletaz: Irazustabarrena-Arrillaga eta Galdos-Erasun.

**19:00.** Gizonak eskuz: J. Alberdi-Irazustabarrena eta Perurena-Erasun. Sarrerak 5 euro eta 16 urtez azpikoek doan.

# Inbertsio eta lanen balantzea egin du Enirio-Aralarrek

Gipuzkoako Foru Aldundiak diru ekarpena eten zuenetik udalek diru ekarpena hirukoiztu egin dutela esan du mankomunitateko lehendakariak

## Erredakzioa

Azken hiru urteetan Enirio-Aralar Mancomunitateak egindako inbertsioen eta lanen balantzea egin du. Lehenengo azpimarra, finantziazioan jarri du Adur Ezenarro mankomunitateko lehendakariak. «30 urtetan mendiko inbertsioetarako egon den hitzarmenari alde bakarrez uko egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020tik hona ez du euro bat bera ere jarri mankomunitateko lur sailetan hobekuntza lanak egiteko». Ezenarro nabarmendu du, aldundiaren jarrera ikusita, mankomunitateko 15 udalek diru ekarpena handitzea erabaki dutela: «Guztira, 69.388 euro bideratu dira inbertsioetara, zatirik handiena 15 udalen ekarpenari esker izan da baina baita Eusko Jaurlaritzatik jasotako laguntzei esker ere».

Ezenarrok aipatu du mankomunitatea ez dela beste erakundearen «utzikeria eta konpromiso faltaren» erantzule, nahiz eta bertatik egoera kudeatu eta bideratzeko ardura hartu. Horregatik eskerrak eman nahi izan dizkie diru ekarpena handitzeko erabakia hartu duten udalei, «egindako ahaleginagatik».

Enirio-Aralar mankomunitateko arduradunek azken urtean aurrera eraman diren lanak zerrendatu dituzte, abeltzaintzari dagozkionak horietako batzuk, eta ingurumen arlokoak beste batzuk. Ezenarrok iragarri du Enirio-Aralarreko Kudeaketa Plan berri bat egiteko asmoa dutela 2022an. «Elkarlanerako atea beti irekita izan ditugu eta halaxe izango ditugu hemendik aurrera ere».

## EH BILDUKO ORDEZKARIAK

Mankomunitateko EH Bilduko ordezkariak esan dute udalen ahaletan ekonomikoari esker Enirio-Aralarreko beharrezko erantzuteko lanean ari direla. «Beste eragile eta erakunde batzuen da lehen sektoreari zein Enirio-Aralarko egoerari irtenbide integralak ez ematearen ardura», esan du Zelai Amenabarrok, EH Bilduko ordezkariaren izenean.

Sektoreak bizi duen krisia, urteetako kudeaketa «desegokiaren» ondorioa dela uste dute EH Bilduko ordezkariak. «Irtenbidea sako-neko neurrien eskutik etorriko da. Bada garaia arazoaren muinari patxadaz begiratu eta beharrezko neurri estrukturalen gainean hitz egiteko».



Ordiziako atzoko agerraldian izan zen Amundarain, Amezketako alkatea. ATARIA



## zozketak

Atarikideentzat  
liburu bat dugu



Nerea Loiolaren  
Azken Lanhütarra

Parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



## Eneritz Maiz Etxarri

ATARIA IRRATIKO *Baserritik* saioko protagonista izan da Koro Artola. Jada 30 urte pasa dira Berastegiko Iturregi baserrian artzain lanean hasi zela. Berastegiko lareetan ibiltzen da bere artalde, eta begiradarekin transmititzen du bizi egiten duela baserria.

### Umetatik tokatu zaizu baserriko lanean aritzea?

Bai. Aresokoa naiz, eta bost anai-arreba ginen eta txikitatik tokatu zaigu. Ez lan pila bat egitea, baina beti laguntzen genuen baserrian.

### Zer zegoen ume garaiko baserrian?

Animalia asko ez genituen. Aitak fabrika egiten zuen lan, eta ama eta gu baserrian ibiltzen ginen. Bi behi, txekorrak, oiloak eta txerriak genituen. Etxerako ekoizten genuen. Belar garaian segarekin eta traktorearekin ere ibili behar izaten genuen.

### Gustura aritzen zinen?

Ni bai. Ez dut batere oroitzapen txarrik, eta gustura aritzen nintzen. Egin beharra zen, baina nik ez nuen egin behar moduan hartzen. Egin egin behar zen, eta egin egiten genuen.

### Lan mundura salto egitean zein bide hartu zenuen?

Urte batzuk ikasten aritu nintzen Leitzaan, eta ikasketak bukatzearekin batera, 18 urte betetzean, Ibarran hasi nintzen lanean. Hamabi bat urtez aritu nintzen eta niretzat ez zen gustukoa. Kaleko mundu hori ez zitzaidan gustatzen, eta lana bukatu eta azkar etxera joan nahi izaten nuen. Orduan ez nintzen konturatzeko zer gustatzen zitzaidan, baina baserriko askatasuna eta giroa gustatzen zitzaidan.

### Eta nolatan hasi zinen baserrian lanean?

Berastegira ezkondu nintzen, eta ezkondu eta urtebetera nire koinatua hil egin zen. Ardiak zituene baserrian. Pixkana-pixkana gelditu ziren ardi haiekin lanean hasi ginen, eta orduan ikusi nuen kalera joan gabe etxean lan egiteko aukera nuela.

### Zure gustukoa zen hori?

Bai. Bete egiten ninduen eta gustura hasi nintzen.

### Erraza izan zen erabaki hori hartzea?

Erraza izan zen. Argi nuen ez nuela berriz kalera joan nahi lanera. Etxeko ardiak zaintzeko aukera nuela ikusi nuen, eta nire etxea zaintzekoa ere bai, hau da, familia bat osatu dut bi seme-alabekin, eta ardietara dedikatu ahal izan dut. Nahikoa terreno zegoen etxean, gizonaren baserrian, eta horrela hasi nintzen.



E. MAIZ

# «Erakundeek zein mundu den hau eta zein behar ditugun ikusi behar dute»

## KORO ARTOLA ERASO ARTZAINA

Hogeita hamar urte daramatza Koro Artolak artzain lanean, Berastegin; kaleko lana utzi eta artaldearen ardura hartu zuen, eta «oso gustuko» lana duela aitortu du; baserriko askatasunak bete egiten du.

### Zergatik ardiak?

Hori zegoelako. Nik ardiak ez nituen ezagutzen. Nire baserrian, Areson, ardiak ez genituen izan, baina maneiatzen duzun animalia da ardia. Ez da behi baten moduan. Pixkana-pixkana hasi nintzen eta hasieran beldurra eta dena ematen zidaten, baina gero ikusi nuen erraz moldatzen nintzela nire martxan, eta horrekin jarraitu nuen.

### Orain jada ondo ezagutzen dituzu.

Orain bai. Konturatu gabe urte-tik urtera ikasten joaten zara, eta azkenean ondo maneiatzen ditut ardiak. Ez ditut ardi guztiak ezagutzen, baina badakit nireak direla.

### Nolakoa da zure egunerokoa?

Garai ezberdinak daude urtean. Orain, adibidez, ardiak jetzi eta

gazta batzuk egiten ditut, eta lan dezenteko garaia da. Ardiak jetzi behar ditut goiz eta arratsalde, eta lotura handia da. Baina beste denboraldi batzuk lasaiagoak dira. Udaran belarrak egin behar dituzu, eta egun batzuk lan askokoak izaten dira, baina egun lasaiak ere bai tartean. Udazkenean, berriz, bi edo hiru hilabete lasai-lasai ibiltzeko aukera izaten dut.

### Gustuko duzu udazkena?

Ardiek ere lan gutxiago ematen dute, eta oso gustukoa dut udazkena.

### Baina negu alderako berriz ere arkumeak jaiotzen hasiko dira?

Gerran hasten gara hor. Dena prestatu behar da, garoa egin, ukuilua prestatu...

### Kate bat da.

Denboraldi bakoitzean lan batzuk daude, ezberdinak dira. Ardiez gain, belazeak txukundu behar dituzu, itxiturak moldatu urte guztirako,... ez dira bukatzen lanak. Dudarik gabe utzi egin behar dira lanak. Udaberria da lanik gehieneko garaia ekaina bitarte; ardiak jezten ari garenekoa. Oso lotua da, eta tarte gutxi geratzen zaizu beste lanak egin ahal izateko.

### Gaztak ere egin behar.

Lan handia ematen dute. Lagundu egin behar zaio gaztari; garbitu, buelta eman,... ordu asko joaten dira.

### Zer suposatzen du gaztak egiteak?

Denboraldiko lan guztia gaztan agertzen zaizu. Oso aberasgarria da artzaina izan eta zure gazta ateratzea; zure esnearekin, zuk jetzi dituzun ardiekin eta bada-kizu zer nolako esnea duzun. Eta prozesu guztian zu zaude. Arkumeak jaiotzerakoan ere zu zaude

laguntzen eta zuk saltzen dituzu, eta jetzi eta esne horrekin gazta ateratzen zaizu. Askok betetzen zaitu.

### Sekreturik bada?

Larre onak eta esne garbia erabiltzea. Eta gustura egitea. Lana gustura egiten baduzu, antze-man egiten dela uste dut.

### Arkumeen jaiotza garaia go-gorra izango da.

Gainean egon beharra dago, eta lan handia izaten da. Zu gainean baldin bazaude errazten duzu pixka bat. Gaezan senarra bidaltzen dut, eta goizean goiz ni joaten naiz.

### Saldu ere egin behar, ordea.

Senarrak laguntzen dit, baina bai 11-12 kilotara iristen direnean saldu egin behar dira. Ez da erraza gaur egun. Ia inor ez da etortzen arkumeak behar dituela esanez. Zure kabuz atera behar duzu.

### Saltzeko orduan urte guzti horietan alderik atzeman duzu?

Ez. Egoera bera da, eta prezioa ere bera da. Ez da aldatu. Hasiera-hasieran gogoan dut tratulariak etortzen zirela, eta beraiek aukeratu eta eramaten zituztela. Orain ez da inor agertzen eta guk ibili behar dugu bila.

### Berastegiko larreak zaintzen dituzte zure ardiak.

Ardiek, ardiak... egia esan artzainak gehiago. Ardiak goxoa baldin badago jaten dute, baina txukundu artzainak egin behar du. Belar txarrak bazterrerara uzten dituzte, eta zerorrek joan behar duzu sasi-garbitzeko makina hartuta.

### Zer ematen dizu baserriak?

Nik ateratzen dut lana, nik jartzen dut ordutegia, ni moldatzen naiz... lana egiteko askatasuna dut. Gustukoa dut eta oso gustura aritzen naiz.

### Bazterrean zaudetela sentitzen duzu?

Ez nuke esango bazterrean, baina oso laguntza gutxi daude. Nik uste dut instituzioen aldetik, batak bat, baserri txiki edo ekoizle txikiei begira gehiago lagundu beharko luketela. Traba pila bat jartzen dituzte guztirako, eta ilusioa galtzera iristen zara. Erakundeetako jendeak gehiago egin beharko luke lehen sektore-agatik eta ikasi ez dakit, baina ikusi egin beharko lukete zein mundu den hau eta zein behar ditugun.

BABESLEA



**TOLOMENDI**  
Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea

# Ataria Pilota Txapelketako jardunaldiak


Benjamin B eta infantilen eskuzko partidak jokatu dira datozen egunetan; Altzon palaz ariko dira larunbatean

## Erredakzioa

Ataria Pilota Txapelketako partidak izango dira ostegunetik larunbatera bitarte. Eskuzko benjamin B mailakoek larunbatean izango dituzte 3. jardunaldiko partidak Anoetan, Tolosan eta

Ibarran. Eskuzko infantilak aldiz bihar ariko dira 2. jardunaldiko partidak jokatzen Amezketan.

Palari dagokionez, bai benjamin eta alebinak eta baita infantilak ere Altzon ariko dira larunbatean 16:00etatik aurrera.



Infantil mailako eskuzko lehen jardunaldia jokatu zen Amezketan. I.G.L.

## ASTEBURUKO PARTIDAK

### Eskuz, benjamin B

#### Anoeta,

#### 3. jardunaldia

#### Larunbata, 11:00

Roteta-Agirrezabala  
Bordas-Oñate  
Balerdi-Albisu  
Bravo-Landa  
Langarika-Artola  
Tolosa-San Sebastian  
Goñi-Letamendia-Goya

#### Tolosa (Beotibar),

#### 3. jardunaldia

#### Larunbata, 15:30

Artola-Gorostidi  
Robles-Gonzalez  
Ruiz-Rezola  
Arruti-Gereño  
Lasarte-Sagarna  
Goikoetxea-Beloki

#### Ibarra

#### 3. jardunaldia

#### Larunbata, 15:30

Azpilikueta-Renobales  
Zubeldia-I Aierbe  
Bengoetxea-Maiza  
Barriola-Aburuza  
Agirre-Carrillo  
Estevez-Erauskin

Otaegi-Acosta

Zufiria-Urizar

### Eskuz, infantilak

#### Amezketan,

#### 2. jardunaldia

#### Bihar, 18:30

Altuna-Artola  
Karrera-Gorostidi-Goñi  
E-Oñate-U. Zufria  
Garmendia-Garcia  
L. Garmendia-J. Jauregi  
Arandia-Olano

### Palaz, benjaminak eta alebinak

#### Altzo,

#### 2. jardunaldia

#### Larunbata, 16:00

Mayoz-Benjerano  
Lasa-Beloki  
Goenaga-Lopetegi  
Irizar-Elduain  
Zabala-Aburuza  
Goitia-Elola

### Palaz, infantilak

#### Altzo,

#### 1. jardunaldia

#### Larunbata, 16:00

Luluaga-Agirre  
Goikoetxea-Juantorena



Bidania-Goiazko Agurtzane Zelaia alkatea (eskuinetik lehen) aurkezpenean. A.I.

## Bidania-Goiaztik pasako da Domusa Teknik 40 MLK proba

Larunbatean izango da proba eta Azpeitian hasi eta bukatuko bada ere, tartean Bidania-Goiaztik pasako da; 420 dortsal inguru banatuko dituzte

### Anartz Izagirre

Urola Kostako Hitzza

Maiatzaren 14an izango da Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatutako Domusa Teknik 40 MLK probaren lehen edizioa.

65 kilometroko proba izango da, eta Domusa Teknik enpresa da haren babesle ofiziala; hortik dator probaren izena. Azpeitian hasi -08:00etan- eta amaituko bada ere -18:30ean dago amaiera aurreikusita-, beste hiru herri zeharkatuko ditu probak: Errezil, Bidania-Goiaztik eta Beizama. Mendi tontorrei dagokienez, berriz, Arroita edo Arauntza (612 metro), Sañu (616 metro), Gazume (1.002 metro), Hernio (1.078 metro), Murumendi (868 metro), Izazpi (973 metro), Hiruarrieta edo Samiño (933 metro) eta Xoxote (912 metro) igaro beharko dituzte parte hartzaileak. 7.400 metroko desnibel metatuta izango du lasterketak; hau da, 3.700 metro goranzko edo positibo, eta beste horrenbeste beheranzko edo negatibo izango ditu.

Partaide kopuruari dagokio-

nez, berriz, 420 dortsal banatuko dituzte.

Azaroaren 18an ireki zuten proban izena emateko epea eta segituan amaitu ziren dortsal guztiak.

### EUSKADIKO ULTRA TXAPELKETA

Bestalde, Euskal Mendizaleen Federazioak Euskadiko Ultra Txapelketa izendatu du Domusa Teknik 40 MLK probaren lehen edizioa, eta antolakuntzak ezarritako 400 partaidetako muga apur bat igo da federazioaren bitartez parte hartuko duten lasterkariengatik. 420 dortsaletatik 36 izango dira emakumeenak eta 382 gizoneenak.

Proba antolatzeraz animatu diren boluntarioen kopuruak «sorpresa» eragin diela azaldu du Lagun Onak Mendi Bazkunako Iker Ezamak: «Jendea laguntzeko prest agertu da hasiera-hasieratik, eta horrek lanean gogor jarraitzeko indarra eman digu. 300dik gora boluntario izango ditugu bai ibilbidean zehar, baita herriko hainbat langintzetan ere».

## Lasok jokatuko du Altunaren aurka

**AMEZKETA //** Unai Lasok jokatu egingo du Jokin Altunaren aurkako Buruz Buruko Txapelketako lehen finalerdia, larunbatean, Bizkaia pilotalekuan. Lasori sendatu egin zaio eskuin sorbalduen lesioa. Baikoko aurrelariak proba egin zuen atzo, pilota aukeraketaren aurretik, eta proba balekoa izan zen.

## Amondarain eta Larrarte, Itzulian

**TXIRRINDULARITZA //** Ostiralean hasi eta igandean bukatuko da Itzulia Women txirrindulari probaren lehen edizioa. Bertan eskualdeko bi txirrindulari izango dira: Eukene Larrarte tolosarra, Bizkaia Durango taldearekin, eta Naia Amondarain ibartarra, Sopela Women's Team taldearekin.

## Elorri Aldapak, igoera faseko finalerdia

**ALEGIA //** Elorri Aldapa gizonezkoen saskibaloitza taldeak igoera faseko finalerdia du larunbatean, 16:15ean, Arrasaten, Mondragon Unibertsitatearen aurka. Autobusa antolatzen ari dira eta interesatuek taldearekin harremanetan jarri behar dute [elorri.aldapa@gmail.com](mailto:elorri.aldapa@gmail.com) helbidera idatziz edo Instagram bidez.

## Gipuzkoako Koparen finalerdia, Tolosan

**TOLOSA //** Areto futboleko Gipuzkoako Kopa Eguberrietan jokatzea zen, baina atzeratu ondoren gaur jokatuko dira finalerdia, eta horietako batean eskualdeko bi talde ariko dira: Gipuzkoako lehen mailako TEEP Tolosala eta Bigarren B mailako Lauburu Ibarra. Tolosako Uzturpe frontoian jokatuko da, 20:45 hasita.

## Billabonaren partida garrantzitsua

**AMASA-VILLABONA //** Futboleko Billabona FKE gorengo mailako taldeak partida garrantzitsua du Mondragon taldearen aurka, Arratzainen, larunbatean 17:30ean. Irabaziz gero, maila mantenduko dute. Galduz gero, beste hiru taldeekin lauko finala jokatuko luke, eta irabazleak mantenduko luke maila.



# Danok Danenako sei pultsulari, txapeldun

Halterofiliako absolutu mailako Euskadiko Txapelketan emaitza nabarmenak lortu dituzte taldeko kideek, Olaederra kiroldegian

## Erredakzioa

Absolutu mailako Euskadiko Halterofilia Txapelketa izan zuen jokoan larunbatean Villabonako Olaederra kiroldegian, eta Danok Danena taldeko pultsulariak lehen postuetan sailkatu ziren. Emakumezkoetan, taldeko bi izan ziren txapeldun, eta gizonezkoetan lau izan ziren podiumeko lehen postura igo zirenak.

Emakumezkoetan, 55 kiloko kategorian, Naiara Madrid bigarren izan zen eta Amaia Blanco hirugarren; 59 kilokoan, Daniela Perez izan zen txapelduna; 64 kilokoan, Susana Davila txapel-

dun; eta 71 kilokoan, Allison Rivera hirugarren izan zen. Herrialdeka Gipuzkoa izan zen irabazlea, bigarren Bizkaia eta hirugarren Araba.

Gizonezkoetan, 61 kilo kategorian, Ekaitz Kortajarenak lehen postua eta Jon Kepa Kortajarenak bigarrena lortu zuten; 73 kilokoan, Igor Sasiain izan zen txapelduna; 89 kilokoan, txapelduna Eki Lizaso izan zen; 102 kilokoan, Jon Ander Iriarte txapelduna eta Aitor Tecedor bigarrena izan ziren. Herrialdeka, Gipuzkoak irabazi zuen, ondoren Bizkaia eta hirugarren Araba izan zen.

Markei dagokionez, Eki Lizasok Gipuzkoako 17 urtez azpiko bost errekor berri ezarri zituen: arrankadan 115 kilo, bi denboratan 145 kilo, eta total olinpikoan 252 kilo, 257 kilo eta 260 kilo.

## JUNIOR TXAPELKETA

Bestalde, orain gutxi Madrilen Espainiako Junior Txapelketa jokatu zen eta Danok Danena halterofilia taldeko hiru pultsulari aritu ziren lehian.

61 kiloko kategorian, Jon Kepa Kortajarenak zilarrezko domina lortu zuen. 89 kiloko kategorian, Eki Lizasok zilarrezko bi domina eskuratu zituen, bi denboratan



Daniela Perez, larunbatean, Euskadiko Txapelketan. ENERITZ MAIZ

eta total olinpikoan, eta brontzezko domina arrankada modalitatean. 89 kiloko kategorian ere lehiatu zen Xabier Amonarriz. Hiru urtez altza gabe egon da, le-

sioak tarteko zirela, eta hiruetatik lan hoberena egin zuena bera izan bazen ere, dominarik gabe gelditu zen puntu bakar bategatik.

# Bigarren aukeran lortu beharko du igoera TAKEk

Redline Mekanika TAKE asteburu honetan saiatuko da EBA ligara igoko den bigarren taldea izaten, lauko finala irabaziz

## Imanol Garcia Landa Tolosa

Etxeko lanak egin zituen asteburuan Redline Mekanika TAKE saskibaloi taldeak, Atletico San Sebastiani igoera faseko ligaxkaren azken partida irabazita, baina ez zen nahikoa izan zuzenean igoera ematen zuen lehen postua lortzeko. Postu horren borrokan zeuden beste bi taldeek ere

garaipena lortu zuten, eta azkenik Bilbao Basket taldeak lortu du EBA ligara igotzea. Redline Mekanika TAKEk, beraz, igoera lortzeko beste aukera bat izango du asteburuan, lauko finala jokatu baitu. Donostiako Illunben jokatu du finalerdia Universidad Deusto Loiola Indautxuren aurka larunbatean, 20:00etan hasiko den partidari. Beste fina-

lerdia, Tecnum-Askatuak eta Tabirako Baque taldeen artekoa, 18:00etan hasiko da.

Goar Artetxe entrenatzaileak harro hitz egin du taldeak egin duen igoera faseaz: «Zortzi partidetatik zazpi irabazi ditugu, eta galdu genuena puntu batengatik izan zen Bilbao Basketen aurka. Taldeak egin duen igoera fasea ikaragarria izan da». Taldearen-

tzat aste garrantzitsua dela dio: «Horrelako egoeretara ez gaude ohituta, finalerdia jokatu eta irabaziz gero finala hurrengo egunean jokatzera». Deusto Loiola Indautxuren aurkako azken partidari sekulako jipoia eman zion TAKEk, baina oraingoan partida parekatua espero du Artetxek: «Beraiek oso ondo prestatuko dute partida, eta talde indartsua

da. Gure bertsio onena eman beharko dugu finalerdia aurrera atera nahi badugu». Larunbatekoa irabaziz gero, finala igande eguerdian izango dute.

TAKE klubak larunbateko finalerdia ikusi eta taldea animatzera joateko deia egin die zaleei. Sare sozialetatik jakinaraziko dute bertara joateko autobusik antolatuko ote duten.



Redline Mekanika TAKE taldeko kideak eta zaleak, aurreko larunbateko partida jokatu ostean. TAKE

## Hilberriak eta urteurrenak



### Jesusa Aldasoro Begiristain

- Goian bego -

Atzo hil zen 83 urte zituela Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Senarra: Andres Arratibel; seme-alabak: Josune eta Josu, Amaia eta Jose, Aitor eta Josune; bilobak: Aritz, Ander, Joseba, Gorka, Haizea; anaia: Jose M<sup>a</sup> (†), Martin (†), Juan (†), Fermin (†); ezkon anaia-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko ZAZPIETAN, ATAUN AIAKO ANDRE MARI IKUSTALDIAREN Parroki Elizan egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldez aurretik.

ATAUN-AIAN, 2022ko maiatzaren 11n.  
Helbidea: Jose Lasa, 5.



### Mikeli Lopetegi Jaka

(Fidel Mujikaren alarguna)



Herenegun hil zen 86 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Seme-alabak: Lourdes eta Andoni, Marian, Pilare eta Gorka, Mikel (†); bilobak: Leire, Aizpea eta Xabi, Eneko; anaia-arrebak: Tomas (†) eta Mikela (†), Agustina eta Domingo (†), Joxe Anjel (†) eta Pilar, Joxe Leon (†), Julian (†) eta M<sup>a</sup> Dolores, Feli (†) eta Antonio, Arantxa eta Joxe Ramon; ezkon senideak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko SEIETAN ITSASOKO SAN BARTOLOME Parroki Elizan gorpua aurrean dela, egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldez aurretik.

ITSASO-DONOSTIAN, 2022ko maiatzaren 11n.  
Oharra: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da GAUR ASTEAZKENA 10:00-13:00.



**ASTEAZKENA, 2022KO MAIATZAK 11**  
**Argitaratzailea:**  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeka Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
anoetaldea@ataria.eus  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezero arretra zerbitzua:** **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



# ASTEAZKENA 11

## AGENDA

### Deialdiak

**Alegia.** Galtzaundi euskara taldearen urteko bilkura nagusia, kultur etxean, 18:00etan.  
**Alkiza.** Sormenaren Kabia Bekaren aurkezpena, Ainhoa Goenaga artistarekin eta Juan Kruz Igerabide idazlearekin, Ur Maran, 11:00etan.  
**Anoeta.** Nosotras mujeres de Euskalduna-ren proiektzioa, gaztetxean, 18:00etan.  
**Berrobi.** Emakumeen Topaketak. Sexualitatea emakumeengan, Etxolan, 18:00etan.  
**Tolosa.** Sahara occidental, entre el olvido y la tradición hitzaldia, bidaia-rien txokoa, 19:00etan.  
**Tolosa.** Salvajes filma (GnatZinema), Leidorren, 19:00etan.  
**Tolosa.** Etxebizitza eredu eztaba-dagai, Auzaotxean, 19:00etan.  
**Tolosa.** Gaurko euskal eskultura hitzaldia, Aranburun, 19:00etan.

## ATARIA IRRATIA

**09:00. Pasahitza.** Asier Imazek gidatutako magazina.  
**15:00. Desafioa.** Herri kirolak, Joxe Anjel Sarasolarekin.  
**16:00. Zebraidea.** Magazina.  
**20:00. (H)ari naizela.** Bertsolaritza, Imanol Artola Felix-ekin.

## 28 KANALA

**08:00.** 1, 2, 3 hemen da Miru!  
**11:00.** Musika zuzenean  
**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeetik  
**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeetik  
**22:00.** Ur etalur.

## FARMAZIAK

### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.** Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.  
**TOLOSA. Gauekoa.** Leire Andres Morant. Zabalarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Uda sasoiko giroa. Goizean goi-hodei batzuk izanagatik, giro eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean zehar be-roaren eraginez bero-hodeiak garatzen joango dira, baina zaila izango da ekaitzak jotzea, giro lasaia jarraipena izango duelarik. Goizean hego-haizea ibiliko da; arratsaldean aldiz, iparraldekoa. Tenperatura igo eta 26-28 graduan joko du goia, txokoren batean gorago kokatzea baztertu gabe.

**Bihar.** Giro nahasiagoa. Goizean erdi eta goi-mailako hodeiak ugariak izango dira, baina ostarteekin tartekatuko dira eta eguraldi lasaia izango dugu. Arratsaldean, bero-hodeiak garatuko dira eta azken orduan ekaitzen bat lehortzeko aukera dago. Hala ere, ateri eutsiko dio. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da eta tenperatura zertxobait jaitziko da, 25-26 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzukizunik.

# Saharar gatazka ulertzeko ekitaldiak

Fronte Polisarioaren sorreraren urteurrenaren bueltan ekitaldi sorta antolatu du Tolosaldea Sahararekin elkartek

## Asier Imaz

Tolosaldea Sahararekin elkartek Maiatza Borrokan izenburupean hainbat ekitaldi antolatu ditu beste urte batez. Ez da kasualitatea egitaraua egun haue-tan kokatzea, saharar herriaren-tzat egun garrantzitsuak baitira. «Atzo, hain justu, 49 urte bete zi-ren Fronte polisarioa sortu zela eta hilaren 20an, berriz, lehen ekintza armatua egin zuten, be-raz, horien aitzakian antolatzen ditugu ekitaldiak», azaldu du Egoitz Luisa elkarteko kideak.

Marokok su etenaren baldin-tzak hautsi zituenetik gerra ego-eran dagoela Mendebaldeko Sa-hara gogoratu Luisak, baina, in-formazio gutxi iristen dela; errefuxiatuen kanpalekuetako informazioa iristen da Maroko-ren eskuetan ez dagoelako, bai-na Mendebaldeko Saharako gu-txi». Hori izango da, hain justu, datorren asteko hitzaldian jorra-tuko duten gaia.

Espainiaren Mendebaldeko Sahararekiko jarrera aldaketa «kolpe handia» izan dela bai sa-hararentzat bai eta elkartearen-tzat ere azaldu du, «konponbide-rako atzera urrats bat delako». Hori izango da besteak beste hiz-pide gaur Tolosan izango den hi-tzaldian; «bertako egoera zuzenean bizi duen aktibista saharar



Aurten ere haima jarriko dute, eta tea hartzeko aukera izango da. I. GARCIA

batek egingo du analisi politi-koa».

Proiektuak ezagutzeko aukera ere izango da Maiatza Borrokan egitarauaren barruan. Etzi, osti-ralean, Bubisher proiektuaz ari-ko dira Anoetan. «Kabiak proiektu-aren barruan, errefuxiatuen kanpalekuetan liburutegiak bul-tzatu eta irakurzaletasuna susta-tzeko ekimena da, eta oso polita iruditu zaigunez, bultzatzaile-tako bat gonbidatu dugu».

Azken egunean, hilaren 20an, «amaierako festa» modukoa egingo dute Villabonan. Haima bat jarriko dute, henna egiteko aukera, tea eta musika... izango da. Hitzaldi bat izango da tarte-an, eta baita elkarretaratzea ere.

## EGITARAUA

**Maiatzak 11.** Sahara Occidental, entre el olvido y la traición hitzaldia, Ta-leb Alisalem saharar aktibistarekin, Antxon Bandres bidaia-rien txokoa, 19:00etan.

**Maiatzak 13.** Bubisher proiektua eta Saharako kabiak. Anoetako udale-txean, 19:00etan.

**Maiatzak 18.** 3 camarás robadas. Lurralde okupatuetan Equipe Me-diak jasaten duen jazarpenaren in-guruan, Ahmed Ettanji bertako zu-zendariarekin, Alegiako kultur etxe-an, 19:00etan.

**Maiatzak 20.** Haima, henna, musi-ka... Villabonako Berdura plazan, 16:00etan. Elkarretaratzea, 19:30ean.

R. ZABALA  
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Ataria  
www.ataria.eus • 107.6 fm

Egin txotx atariarekin!

Atariako irakurleentzat Zabala Sagardotegiarekin elkarlanean, zozketa abian jarri du Atariak.

Zozketako oinarriak eta informazio guztia Ataria.eus-en



Parte hartzeko epea:  
Maiatzaren  
6tik 15era.



**Saria:**  
Sagardotegi menua bi pertsonarentzat eta sagardo kaxa